

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

### GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

**Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lan poltsa honetan sartzeko eskubidea duten pertsonen behin-behineko zerrenda: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, laguntzaileen teknikarien klasea, informatikako teknikari laguntzailea**

Euskal Funtzio Publikoaren 6/89 Legeak 33.1 artikuluan xedatzen duenez, bitarteko funtzionarioak publizitate, berdintasun, merezimendu eta gaitasun irizpideak kontutan izanik hautatuko dira, eta ahalik eta bizkorren jokatzen saiatuz izendatuko dira.

Aldi baterako zerbitzuak eskaintzeko Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren aldi baterako lan poltsak kudeatzeko araudia aldatzea onetsi zuen azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduaren 4.1.a) artikuluan ezarritakoaren arabera, uztailaren 18ko 3/2019 Foru Aginduak emandako idazketan (2019ko uztailaren 31ko ALHAO, 88 zk.), aldi baterako lan poltsak, beste sistema batzuen artean, funtzio publikoan sartzeko deialdien bidez (enplegu publikoaren eskaintzak) eratuko dira, behin langileak hautatuta daudenean. Horretarako, langileak hautatzeko sistema horretako oinarrietan berariaz adierazi beharko da horren funtzio bikoitza (lanpostu hutsak betetzea eta aldi baterako lan poltsa sortzea).

Diputatuen Kontseiluaren azaroaren 29ko 814/2016 Erabakiak Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016rako enplegu publikoaren eskaintza onetsi zuen, eta bertan jaso ziren hautaprobek bidez bete behar diren plazak.

Maiatzaren 9ko 82/2017 Foru Aginduaren bidez onespena eman zitzaizen Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen 2016rako enplegu publikoaren eskaintza arautzen zuten oinarri orokorrei (ekainaren 1eko 111/2017 Foru Aginduak aldatu zituenak). Oinarri Orokor horien 14. puntuan esplitziki adierazten da aldi baterako lan poltsak eratzeko asmoa, oposizio faseko lehen ariketa gainditu duten hautagaiekin eta, gainditu ez arren, oposizio faseko lehen ariketaren bigarren proba gainditu dutenekin eta hautatutako pertsonen behin betiko zerrendan agertzen ez direnekin.

2016ko EPEko informatikako teknikari laguntzailea plazari dagokion hautaketa prozesua amaituta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak ofizioz eman dio hasiera aldi baterako lan poltsa eratzeko prozesuari, azaroaren 18ko 46/2009 Foru Aginduaren 4.2 artikuluan xedatutakoaren arabera (uztailaren 18ko 3/2019 Foru Aginduak aldatua). Horretarako, lan poltsa horretan sartzeko eskubidea dutenen behin-behineko zerrenda argitaratuko da Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Atarian [www.araba.eus/ifbs/portalempleo/](http://www.araba.eus/ifbs/portalempleo/) eta ALHAOn.

Aurreko gutzia kontuan hartuta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakunde Autonomoaren Egitura eta Funtzionamendu Arautegia onesten duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuak 12. artikuluan aurreikusitakoari jarraituz, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen eratzeko duen ekainaren 20ko 21/1988 Foru Arauaren 7. artikulua xedatutakoa betez,

#### EBAZTEN DUT

Lehenengoa. Argitaratzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Atarian [www.araba.eus/ifbs/portalempleo/](http://www.araba.eus/ifbs/portalempleo/) eta ALHAOn Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen informatikako teknikari laguntzaileen lan poltsan (administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, laguntzaileen teknikarien klasea) sartzeko eskubidea duten pertsonen behin-behineko zerrenda, ebazpen honen eranskin moduan jasota dagoena.

Bigarrena. Argitalpen honen bidez, behin-behineko zerrendan agertzen diren pertsonen beren eskubidea jakinarazten zaie.

Hirugarrena. Zazpi egun balioduneko epea irekitzen da ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, zerrendan agertzen diren pertsonen, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Publikoaren Atariaren bidez, honako ekintza hauek egin ditzaten:

a) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeari parte hartze lehentasunak jakinaraztea.

b) Pertsona ezinduak diren hautagaiek ezintasunaren ehunekoa adierazi beharko dute eskaeran, baita ezintasunaren balorazioari buruzko espedientea une horretan zein probintzian daukan ere. Lanpostu batean hasi aurretik, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Laneko arriskuen prebentzioko unitateak dei egingo die pertsona horiei, eskatutako lanpostuetarako funtzioak garatzeko gaitasun ziurtagiria eman dezan unitate horrek, barne hartuz, hala bada-gokio, beharrezko lanpostura egokitzeko moldaketak aipatzea.

c) Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak, beste administrazio batzuetako zerbitzuen bitartez, honako datu hauek egiaztatuko dituela jakitea eta horren aurka ez egotea azaltzea:

– Identifikazioa.

– Titulazioa eta titulazioa lortzeko data.

– Hizkuntza eskakizun egiaztatua eta egiaztapenaren baliagarritasun data.

d) Hizkuntza eskakizuna egiaztatuta izan gabe Euskaraz egindako ikasketa ofizialak aintzat hartzeko eta euskara maila hizkuntza tituluen eta ziurtagirien bidez egiaztatetik salbuesteko apirilaren 3ko 47/2012 Dekretuan adierazitako irizpideak betetzen dituzten pertsonen kasuan kasuko ziurtagiriak aurkeztu beharko dituzte Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Langileen Atalean.

Laugarrena. 7 egun balioduneko epe horren barruan, ebazpen hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, interesdunen erreklamazioak aurkeztu ahal izango dituzte behin-behineko zerrendaren aurka. Erreklamazioak pertsonaren bat zerrendan sartzeko egiten direnean, hirugarren puntuan zehaztutako agiriak ere aurkeztu beharko dira erreklamazioarekin batera.

Gasteiz, 2019ko azaroaren 3a

*Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea*  
**JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS**

### Eranskina

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen lan poltsa honetan sartzeko eskubidea duten pertsonen behin-behineko zerrenda: administrazio bereziko eskala, teknikarien azpieskala, laguntzaileen teknikarien klasea, informatikako teknikari laguntzailea.

NAN
695130 R
16070917 N
16264871 F
16275638 X
16281234 V

NAN
16282268 Q
16292512 W
18602554 Q
18602628 K
24407447 P
35772954 L
44640741 H
44671418 J
44676046 H
44681655 S
44681745 J
44684026 V
71265909 H
72067400 M
72696349 L
72719054 T
72721854 V
72725675 C
72726098 Y
72726399 P
72726982 Q
72727680 R
72729735 D
72729779 F
72735508 D
72745357 Z
72749991 W
72750266 R
72751827 K
72825576 D
72825586 L
78919276 C
78927384 D
78939254 B